

Nafarkaria


Egunkaria

Ostirala, 1996ko ekainaren 7a

*


Olatz Nagusiko biltegia, hamaika iritzi

Nafarroako Gobernuak joan den martxoaren 11n onartu Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren eztabaida udazkenara arte atzeratu egin du Parlamentuak. Potasas de Subiza enpresaren meategietan Nafarroako Gobernuak egin nahi duen hondakin industrialen biltegiaren inguruko eztabaidak, baina, berean jarraitzen du. Gobernuaren ustez azpiegitura egoki eta beharrezkoa da. Galarko Zendeako biztanleak beldur dira eta gogor salatu dute Gobernuak Potasasko biltegiak beste herrialdeetako hondakinak sartzeko duen asmoa. Ekologistak ere lur azpiko lehen biltegia izanen den honen aurka agertu dira. Beraien ustez, hondakin gutxiago sortzeko ahaleginak egin behar dira lehenik. Sindikatuek ere badute zer erranik. CCOO sindikatuaren iduriko, gehiegi hitz egiten ari da Potasasko biltegiak eta oso gutxi Hondakinak Kudeatzeko Planaz.



Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



«Arantzak baldin baditu, ez ezazue dudarik izan. Nik emana da», erantzungo nien galdera egin izan balidate. Baina ez! Ez zen hola gertatu, berehala kontatuko dudana bezala, ikusi ere egin ez zutelako. Marujalenak! Enmanuel dut izena, berrogeitik gorako gizasemea, Europako hiri bateko langilea —bone, funtzionaria—, Administrazio Publiko-koa, Haziendarako enbargu-expedienteak denbora ematen diharduena. Zein hiritan egiten dudana lan, ez dizut esango, deus gutxi dakarkio-eta nire pasadizoari. Guziarekin ere, eta geografari zor zaion errespetoagatik, derradan, Pontedeume, Lyon, edo Iruñea-Gasteiz moduko hiria izan litekeela, kasu. Mailua iltzera. Harritzekoa bada ere, arroso pare bat bada nire lantokiaren ondoan, kolore gorriko ale mardulez ongi homituta; espekulazioak oraindik bota ez dituen etxe zahar batzuen orubeetan hazitakoak. Gaur zortzi, hain zuzen ere, ohi den bezala, beharko, luze joan zen hamaiketako, eta lane-

Udaberriko ñoñokeria

rako itzuleran, hamabiak jota; hara!... eta arrosa horietako bat opari emango banie bulegoko mahaiaren alboko emaztekiei? Pentsatu eta egin. Eskuragai zeudenen artean, kolorez eta petaloz beteena hautatu nuen, noski. Mozterakoan baina; lotsa pixka bat eman zidan, Kant-en esaera borobil horietako bat kolpetik etorri baitzitzaidan burura. Pentsakizunak zera zioen, gutxi gora-behera: «momentu oro joka ezazu zure ibilbidean, jokaturakoa ororendako baliagarri izango den esperantzaz, hots, lege unibertsala bihurtaraziz». Ezin garbiagoa zen ondorioa: pikutara zihuan teutonaren teoria etiko guztia eta, honekin batera, baita arrosa guztiak ere. Asko jota, ehunen bat ale izango ziren bi arrosoaren artean. Asko jota, berrehun mila biztanle izango zituen hiriak. Biodibertsitateari ostiko galanta nirea. Niregatik, ez dago jada arrosarik munduan. Eta azken alea egunkariaren tolesturan gordetarik neramala, bulegora jo nuen eguzkiak eta ri-

nitisak nire baitan bor-bor egiten zuten bitartean. Nirekin batera irten bai, baina heltzeke ziren biak ni ailegatzeko. Berdin zion, eta aurrez aurre paratutako bi mahaien gainean utzi nuen arrosa, apelazio-helegitez inguratuta, kartozko kutxatxo baten barruan. Ixil egin nuen maniobra, inork ikus ez zezan. Dendarik denda ibili ondoren edo, bertaratu ziren bi damak, finean. Eseri eta ordenadore teklatuari ekin zioten. Nirekiko, edozein momentutan adituko nien: «Oh!, ah!, ah! Ai ze politta! Ze ilusioa... Baina, nor izan da? Peter, Wotan, Iñaki... edo, akaso, zu izan zara, Enmanuel?». Minutuak aurrera zihozten eta, bi damak, Internetez zer edo zer esaten, txutxu-mutxuka, opariari erreparatu gabe. Asteburu on bat opatuz, agurt, esan genuen astelehenera arte. Arratsaldeko hirurak ziren lantokitik irtetean. Inoren jakin nahia jaso gabe, hantxe zirauen arrosak, zimeltzen hasita ordurako, munduari buruzko nire ustea bezala. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Aitzoain: Distrito 14 taldeak, kontzertua eskainiko du gaur, hilak 7, Artsaia Musik Club-ean, gaueko 23.30etatik aurrera.

Iruñea: Antonio Baciéro piano joleak kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko 7.45etatik aurrera, Galarre antzokian.

Elizondo: Wichita taldeak kontzertua eskainiko du gaur, Casino tabernan, gaueko 10.30etan.

Barañain: Half Foot Outside eta Lawful Youth taldeek hardcore kontzertua eskainiko dute gaur, gaueko 10.00etatik aurrera, herriko Gaztetxean, Barañaingo Gazte Asanbladak antolatuta. Sarrera dohainik izanen da.

ANTZERKIA

Arellano: Gasteiz Antzerki Taldeak *Tras las caras* obra taularatuko du bihar, hilak 8, herriko pilotalekuan, arratsaldeko 8.00etatik aurrera.

DANTZA

Zizur Nagusia: Tempomobile konpainiak *Ladie's Night* lana taularatuko du gaur Kultur Etxean, gaueko 10.00etatik aurrera. Sarrerak, 500 pezetan.

ERAKUSKETAK

Corella: Rafa Gonzalezen margoak ikusgai dira Kultur Etxean hilaren 15era bitartean. Astegunetan eta larunbatetan egonen da zabalik, arratsaldeko 5.00ak eta gaueko 9.00ak bitartean.

Tafalla: Jose Maria Arceren margoak Velaz erakustaretoan (Iruñea etorbidea, 15) ikusgai izanen dira ekainaren 15a arte.

IBILALDIAK

Iruñea: Oberena Mendi Taldeak ateraldia antolatu du Belaguara igande honetarako, hilak 9. Goizeko 9.30etan aterako dira Oberenatik bertatik. Parte hartu nahi duenak 23 50 75 telefono zenbakira deitu behar du, gaur arratsaldeko zortziak baino lehen.

LEHIAKETAK

Antsoain: Herriko festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketara deitu du Udalak. Kartelek 25x35 zentimetrokoak izan beharko dute gutxienez, eta 40x60koak gehienez. Lanak Udaletxean aurkeztu behar dira abuztuaren 14a baino lehenago. Helduen artean, 60.000 pezeta jasoko ditu irabazleak, eta haurren artean, berriz, 25.000.

BERTSO SAIOA

Etxalar: Bosgarren Altxata Gasna Lehiaketa dela-eta antolatutako ekitaldien artean, bertso bazkaria izanen da eta bertan izanen dira Xabier Amuriza, Manolo Arozena eta Jokin Sorozabal bertsolariak kantuan. Arratsaldeko 2.00etan izanen da.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Erdal Azoka

Erdal Liburuaren Azoka da Iruñeko Azoka, antolatzailetako batek esana. Euskaldunok ez omen dugu ohitura handirik horrelako saltsatan aritzeko, ez orain bederen, eguzkia hemen dagoela, eta uda iristear dugula; ez zaitezela orain etorri horrelako eta halako liburu berriekin, nik bakarrik Durangon erosten dut, esaten omen du euskal irakurleak: peregrinazioetarako ezin uxatuzko joera daukagu oraindik, eta horrelakoxeak nahiago dugu lagunak edo familia bizkarrean hartu eta Bizkaia aldera joan, liburuak erostera, perretxikuak hartzera hona probintziakoak datozen bezala.

Egia esanda, ez zaigu asko galdu Gazteluko Plazako arkupeetan. Atxagaren liburu simple samarraren erdarazko bertsioa, legez kanpoko

komisioak eta ikertu dituen Irujotar baten folelina, Iturri kazetariaren zutabeak bilduta —ze tema egun bateko lore horiek lorepotoetan jartzeko!—. Robinson futbolari gartsuaren ateraldiak liburu batean...

Sikiera, zerbait azpimarratzekotan, Txalapartaren itzulpenak —Izagirrek Preverten lanarekin egin duena umeentzako liburu benetan berezia da—, Antoñanak kazetaritzari buruz argitaratutakoa, Mikel Belaskoren herri izenen liburuak garaiz iritsiko balitz! Ez, nolana ere, eguzkia iritsi dela eta beste zerbaitetaz pentsatzeko adinakoa.

Begiradaxo batekin nahikoa izango dugula dirudi, eta, gainera, erdal liburuak erosiko ditugu azkenean, horixe da-eta azoka honetan gehien erosten omen duguna.



asteko pertsonaiak



Julio Villanueva
'Solidario' presoa


■ Julio Villanuevak eta Iruñeko espetxean preso diren gainontzeko zortzi *solidarioek* erantzun gogorra eman diote 400.000 pezetako fidantza (16.000 libera) ezarri dien Fernando Poncela Agoizko epaileari. Herenegun, hilak sei, Itoizko urtegiko eraikuntza lanetako kableak moztu zituztenetik bi hilabete bete ziren egunean, 30 eguneko gose grebari ekin zioten. Hamabost eguneko estreinako txandan lau ekologista presok hartuko dute parte, eta bigarrenen beste laurak. Euren helburua da jasaten ari diren egoeraren bidegabekeria agerian uztea, fidantzarik gabeko askatasuna aldarrikatzea eta Itoizko urtegiko eraikuntza lanak berriro hasi nahi dituztela salatzea.



Anjel Lertxundi
Idazlea

■ Anjel Lertxundi idazle oriotarrak *Otto Pette*-ren eleberriarren gaztelaniazko itzulpena, *Las últimas sombras*, aurkeztu zuen joan den astelehenean Iruñeko Auzolan liburudendan. Jorge Gimenezek egin du Erdi Aroan kokatutako eleberriarren itzulpena, eta Seix Barral argitaletxeak plazaratu du. Lertxundiren arabera, gaurkotasan handia dauka eleberriarren gaiak; izan ere, bere hitzetan «oraintxe ari gara Erdi Aroa akabatzen: aginte klasikoak —estatua, eliza— erabat disolbatzen ari dira, eta beste osagarri batzuk, askoz ere konplikatua, ari dira sortzen. Gizaki gisara gero eta ezabatuagoak gelditzen ari gara, eta guk ere menderatzen ez ditugun estruktura batzuk sortzen ari gara».

ahaztu gabe!



ESTATUA VS. NAZIOA

Iruñea: *Ba al dakizu estatua eta nazioa desberdintzen?* izenburupean, hitzaldiak antolatu dituzte Arturo Kanpion euskaltegiak eta IPES elkarteak, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntzaz. Lehenengo hitzaldia Emilio Lopez Adan *Beltza*-k eskainiko du, datorren arteartean, arratsaldeko zazpi eta erdietan hasi eta gaueko bederatzietan eta erdiak bitartean, IPES elkartearen egoitzan, San Miguel kaleko 8. zenbakian. Emilio Lopez Adanek *Estatu berriak sortzeko bidea mundu garaikidean: haustura edo konprometua* izenburuko hitzaldia eskainiko du. Asteazkenean, Josu Chueca eta Patxi Larrion izanen dira hizlari, ordu eta leku berean. Beraien hitzaldirako, nazionalismo modernoaren aroa hartu dute gaitzat Chueca eta Larrionek. Era berean, *Estatu gabeko nazioak posible ote?* galdera planteatuko dute euren partehartzean zehar. Hitzaldi hauen bidez, nazionalismoak etorkizunean izan dezakeen garapena hausnartzen ahaleginduko dira antolatzaileak, baita partehartzaileak ere.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Mugairi

Baztango Bailarako Ibilaldia etzi

Baztango Mendigoizaleek antolatuta, Mugairi izango dute abiapuntu eta helmuga

Mugairin abiatu eta han bukatuko da igande honetan Baztango Bailarako Ibilaldia. Baztango Mendigoizaleak elkarrekin antolatu du, eta aurtengoa hirugarren ekitaldia izanen da. Hamazazpi urtetik goitiko mendizale guztiek hartu ahal izanen dute parte Baztango herri, mendi eta txoko ezberdinak eza-gutu eta gozatzeko aukera eskaintzen duen ibilaldi honetan. Goizeko zazpitan abiatuko dira lehen parte-hartzaileak.

Erredakzioa / Iruñea

UDAKO hilabeteak gertu dira eta, udaberriko eguzkiak animatuta, bidera aterata dira herri askotako mendizaleak urtero bezala. Aralar larko ibilaldia egin eta gero, Baztango Bailarako Ibilaldiaren txanda izanen da igande honetan. Eguraldia lagun badute, beste urteetako jendetza bilduko dute aurtengoan ere Baztango Mendigoizaleak elkarteko kideek. Euren antolatu dute ibilaldia, hirugarren urtez, eskualdeko beste hainbat etxeren laguntzaz. Antolatzaileen arabera, naturarekin bat egiteko aukera aparta da Baztango Bailarako ibilaldia, eta era berean, «giro jatorra gozatu eta ingurune zoragarria eza-gutzeko parada eskaintzen du.

Baztango Bailarako Ibilaldiaren hirugarren ekitaldi honetan, Baztango herri, mendi eta txoko ezberdinak zeharkatuko dituzte



Baztango herri eta txokoetan barna egingen dute ibilaldia.

ARTXIBOKOA

parte-hartzaileek. Ibilaldia Mugairin abiatuko da, eta Zozaia, Iraperri, Mendiola, San Blas, Sastra, Larratxe, Olari, Abartan, Ziga, Arraioz eta Larratzutik igaroko dira mendizaleak. Mugairin amaituko da, hasi bezala, Baztango Bailarako Hirugarren Ibilaldiaren aurtengo ekitaldia. Gutxi gora-behera, zortzi orduko ibilbidea egingen dute mendizaleek.

Baztango Bailarako Ibilaldian parte hartu nahi duenak 500 pezeta ordaindu beharko du. Parte hartzeko, 17 urtetik goiti izan beharko dute mendizaleak. Irteerari, dagokion txartela emanen

diote antolatzaileek parte-hartzaile bakoitzari eta txartel hori ibilbidean zehar jarritako kontrol postu guztietan erakutsi beharko dute.

Lehenbiziko mendizaleak goizeko zazpitan abiatuko dira Mugairitik. Ordenari dagokionez, izena ematerakoan lortutako bera izanen da. Bidea behar bezala adierazita egonen da inor gal ez dadin. Halaber, aurreko urteetan bezala, sailkapenak ez du inolako garrantzirik izanen ibilaldi honetan, ez baita lehiaketa bultzatzea antolatzaileen asmoa. Beraz, finkatutako denboretan kontrol postu guztietatik pasatzen diren

guztiek diploma bana emanen diete.

Aipatzekoa da, bestetik, ibilbidean zehar osasun postuak jarriko dituztela Baztango Mendigoizaleak elkarteko kideek, edozein unetan behar diren laguntzak emateko ibilaldian parte hartuko duten mendizale guztiei.

Baztan Bailarako Ibilaldiaren hirugarren ekitaldi hau aurrekoak bezain arrakastatsua izatea espero dute antolatzaileek. Eguraldia lagun badute behintzat, Mugairin egingen dute topo Baztango eta inguruko mendizale guztiek, inolako zalantzarik gabe. X

Altsasu

Zeharkaldia egingen dute etzi mendi bizikletaz

■ Burunda Txirrindulari Elkarteak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

MENDIKO bizikletazko lehen zeharkaldia egingen dute igandean Altsasun, herriko Burunda Txirrindulari Elkarteak Mendi Sailak antolatuta. Goizeko bederatzi eta erdietan hasiko da eta, antolatzaileen usuez, hiru orduko iraupena izanen du. 35 kilometroko ibilaldia egin beharko dute parte-hartzaileek. Zeharkaldia bukatuta ogitartekoak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean eta herriko plazan besta egingen dute egunari behar den moduko amaiera emateko.

Javier Aldaz Burunda Txirrindulari Elkarteak Mendi Saileko kide eta sortzaileak ai-

patu digunez, jada 240 txirrindularik eman dute izena zeharkaldian parte hartzeko. «Nafarroako jendea ezezik, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaitik ere txirrindulari anitz etorriko da». Orotara, 500 bat lagun biltzea espero dute antolatzaileek.

Altsasuko Lehen Zeharkaldia antolatzeko ideia Burunda Elkarteak Mendi Sailak izan zuen. «Beste leku batzuetan halako probak antolatzen zirela bagenekien eta pentsatu genuen guk ere egingen ahal genuela», azaldu digu Javier Aldazek. Mendi Saila 50 bat txirrindularik osatzen dute gaur egun. Igandero egingen dituzte ibilaldiak kideok. Igandekoan ere parte hartuko dute. X

Iruñea

Afrikarekiko elkartasun kontzertua antolatu dute

■ Miguelik eta Flamiz taldeak hartuko dute parte

Erredakzioa / Iruñea

NAKUPENDA AFRIKA elkarrekin (Afrikaren Lagunak) antolatuta, Migueli eta Flamizek kontzertua eskainiko dute bihar, Iruñeko Salestarren aretoan, gaueko bederatzietatik aurrera. Kontzertu honen bidez, Afrikarekiko bere elkartasuna adierazi nahi du Nakupenda Afrika elkarrekin. Elkarrekin honek, hain zuzen, Malawiko Mtengo Wanthenga Ospitaleari laguntza bidaltzeko asmoa du eta horretarako antolatu du kontzertua.

Halaber, Afrikaren egoerari buruz hemengo jendea sensibilizatu nahi dute. Nakupenda Afrika elkarrekin orain dela bi

urte jaio zen. Swahili hizkuntzan, hain zuzen, Afrika maite dut erran nahi du elkarrekin izenak.

Kontzertuaren bidez lortutako diruaren % 80 Malawiko ospitalarentzat izanen da; % 10, afrikar errefuxiatuei laguntza helarazteko; eta gainontzeko % 10a, garapenarako hezkuntza bultzatzeko materiala eskuratzeko.

Migueli Badajozko kantautorea da eta bolondres gisa lan egingen du kartzelatan. Ikastaroak eta kontzertuak eskaintzen dizkie presoei. Flamiz taldea, berriz, orain 10 urte sortu zen, eta Nafarroan nahiz bertatik kanpo eman ditu kontzertuak orain arte. X

Lizarra

Mural lehiaketa antolatu du Udalak gazteendako

■ Zumalakarregi kaleko pareta margotzeko ideiak jasotzea da asmoa

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO UDALEKO Gazteria Batzordeak antolatuta, gazteentzako Bosgarren Mural Lehiaketa egingen dute. Taldeka edo banaka, 30 urtetik beherakoek hartu ahal izanen dute parte. Lehiaketa honen asmoa, Lizarrako Zumalakarregi kalean dagoen pareta margotzeko ahalik eta ideia gehien eskuratzea da.

Lanak krokis modura aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek, hau da, 1:25 eskalan eginik, pintura plastikoz margoturik eta euskarri tinko baten gainean. Parte hartu nahi duten gazteek uztaillaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren lanak, Udaletxeko Erregistro Nagusian. Irabazleak 300.000 pezetako saria jasoko du. Halaber, abuztuan eta irailean zehar murala Zumalakarregi kaleko paretan egiteko konpromezua hartu beharko du.

100.000 pezetaren materiala ere jasoko du irabazleak murala egiteko. Irabazlearen sariaz gain, 25.000 pezetako beste bi sari emateko aukera ere izanen du epaimahaia. X

Zugarramurdi

Euskara denda eta ostatu etan erabiltzeko kanpaina prest

■ Doike euskara taldeak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

ZUGARRAMURDI. Urdazubi eta Baztango denda eta ostatu etan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina hasiko du Doike! Baztango euskara taldeak. Zehazki, botika, denda, ostatu eta tabernetan, merkataritza munduan orokorrean hasiko dira lanean. Horretarako, dendaz denda eta ostatuz ostatu bai Baztanen, Zugarramurdi zein Urdazubin, kanpaina honen helburuak azaldu eta materiala banatuko dute.

Materialari dagokionez, mahai gainean jartzeko kartelxoak, dendariendako hitz-tegi txiki bat eta Doike! euskara taldeko partaide izateko eskaintza orria banatuko dituzte. Hitztegiari dagokiola, eskualdeko hitzak erabiltzen saiatu dira Doike! euskara taldeko kideak.

Doike! Baztango euskara taldeak joan den apirilaren 20an egin zuen aurkezpena. X

Potasas de Subizako
biltegia ezbaian

Potasas, amaitzen ez den polemika

Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren eztabaida udazkenera arte atzeratu du Parlamentuak

Nafarroako Gobernuak egin Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren eztabaida Parlamentuan, udazkeneko arte atzeratu du aste honetan. Plan hau estuki lotuta dago Potasas de Subiza enpresako meategietan Nafarroako Gobernuak egin nahi duen hondakin industrialentzako biltegiarekin. Auzi honek, iritzi kontrajarriak sortzen ditu oraindik ere.

Edurne Elizondo / Iruñea


NAFARROAKO GOBERNUAK 1994. urteko irailaren 20an onartu zuen Hondakin Bereziak Foru Legea. Aipatu legea abiapuntutzat harturik, Hondakin Bereziak Kudeatzeko Plana osatzen hasi zen Gobernuak. Plan hau joan den martxoaren 11an onartu zuen Gobernuak. Parlamentuaren oniritzia baino ez du behar indarrean jartzeko. Joan berri den asteazkenean hastekoa zen aipatu eztabaida Nafarroako Parlamentuan, Ingurugiro Saileko kontseilariaren eta alderdi ezberdinen partehartzearekin. Agerraldia, baina, atzeratu egin da eta, ziurrenik, uda pasata ekinen dio Parlamentuak Hondakin Bereziak Kudeatzeko Plana eztabaidatzeari.

Nafarroako Gobernuak egin Hondakin Bereziak Kudeatzeko Plana, estuki lotuta dago Olatz Nagusian den Potasas de Subiza enpresako meategietan egin nahi den hondakin industrialentzako biltegiarekin, meategiak agortzeaz baitaude.

Potasas de Subizan egin nahi den biltegiak, hala ere, sortu du bestelako iritzirik ere, jakina denez. Azken lau urteetan, batzuek zein besteek euren argudio eta arrazoiak plazaratu dituzte. Biltegia egiteko proiektuaren aurka, argiro, Galarko Zendeako Udala eta biztanleak agertu dira, baita inguruko beste herritarrak ere. Ekologistek ere, Lur-Adiskideen Nafar Elkarteak (LANE) bereziki, errefuxatu egin dute aipatu proiektua. Potasas de Subiza enpresaren barruan, halaber, ekologisten aholkularitza eskatu zuten hasieran langileek eta zenbait sindikatuk, CCOO batez ere, bere zalantzak eta kezkek badituzte eta.

1992. urtetik, hala ere, egoera aldatu egin da. Tartean da

Vicente Duque: «Asko ari da hitz egiten Potasas de Subizako biltegiari buruz, eta gutxi Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaz»



Olatz Nagusian Potasas de Subiza enpresaren hondakinak.

JOXE LACALLE

1994ko Hondakin Bereziak Foru Legea eta, batez ere, Nafarroako Gobernuak onartu Hondakin Bereziak Kudeatzeko Plana. Nafarroako Gobernuaren iritziz, hondakin industrialen alorrean edozer egiteko aurretiko urratsa da egin plana. Honen ondoren, ejekuzio proiektua egin beharko litzateke eta ostean, onartuz gero, biltegia.

Galarko Zendeako Udalaren ustez, baina, Gobernuak egin duen planak Potasas de Subizako biltegia justifikatzea baino

ez du helburu. Plana onartuz gero biltegia ere onartuko den beldur dira. LANEk eta CCOO eta ESK sindikatuek ere plana eta biltegia egiteko proiektua banatzeko eskatu dute.

58.000 tona hondakin urtero

Nafarroan • Nafarroako Gobernuaren ustez, zalantza horiek guztiak Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planarekin desagertuko dira. Bertan jasotzen dira, hain zuzen, hondakin bereziak dagokienez Nafarroako Gobernuak

aurrera eramango duen politikaren oinarriak. Zehazki, hondakinak jatorrian gutxitzea, balorizazio eta birziklapena eta berriro erabili ezin daitezkeen hondakinaren tratamendu egokia.

Hondakinaren kudeaketari dagokionez, printzipioz, jarduera pribatuak sortutako hondakinak ekimen pribatuak kudeatuko ditu. Halaber, Potasas de Subizako biltegiari dagokionean, Parlamentuak Hondakin Bereziak Foru Legearen bidez onartutakoaren arabera, gehiengoz publikoa izanen den —gehienbat Nafarroako Gobernuaren kapitala izanen duena— enpresak kudeatuko du.

Nafarroako Gobernuak, berriki, Foru Dekretuaren bidez *Navarra de Medio Ambiente* merkatal elkartearen osaketa onartu du. Elkartea honen esku geldituko da, antza, Hondakin Bereziak Kudeatzeko Plana, eta printzipioz berak kudeatuko du ere Potasas de Subiza meategietako biltegia.

Hondakin industrialen tratamendu egokiari buruz mintzatzean, horiek gordetzeko edo biltezeko eratu behar diren azpiegiturak ditu gogoan Gobernuaren planak. Eta egun, azpiegituri buruz mintzatzean, bi dira Nafarroako Gobernuak gogoan dituenak. Alde batetik, jada erakita dagoen Arazuriko tratamendu fisiko-kimikorako planta, eta bestetik, Potasas de Subizako biltegia. «Bere egitura geologikoa dela-eta, oso egokia da», azaltzen du Alberto Otamendi Nafarroako Gobernu Ingurugiroaren Kali-



Lurrazpiko lehen biltegia izanen da Potasasekoa.

JOXE LACALLE

Alberto Otamendi:
«Meategietako egitura geologikoa oso egokia da hondakin industrialentzako biltegia egiteko, ez baita urik sartzen»

tatearen Saileko zuzendariak. Gatz meategiak izanik ez da urik sartzen.

Potasas de Subizako biltegiari buruz mintzatzean, bestalde, beharrezkoa den ala ez da askok planteatzen duten galdera. Erantzuna, ezberdina da batzuen eta besteeen ahotan. Otamendiren ustez, bideragarria da. Gaur egun, urtean zehar, 58.000 tona hondakin berezi inguru sortzen dira Nafarroan eta horietatik 30.000 inguru kanpora bidaltzen dira, Madril, Valladolid, Valentzia, Cantabria, Euskal Autonomi Elkartera, besteak beste. Baita Europako beste herrietara, Frantziara kasu.

Otamendik onartzen du Potasas de Subizako meategia handi samarra dela Nafarroan sortzen den hondakin kopurua kontuan hartuz. Gobernuaren ustez, ordea, hain leku egokia izanda —«gatz meategia izanda ura ez da sartzen ezta ateratzen»—, «Nafarroa ezin da besoak gurutzatuta gelditu».

Egindako ikerketen arabera —Hondakin Bereziak Kudeatzeko Plana bost urterako egin da printzipioz eta epe hori igarota berriro eginen da—, urtero 15.000 tona hondakin sartu ahal izanen dira Potasas de Subizako biltegian, horietatik 3.000 inguru izanen dira Nafarroakoak. Gai nontzekoak, beraz, beste herrialdeetatik ekarri beharko dira biltegia bideragarria izan dadin. Hau da Galarko Zendeako eta ekologisten kezka sortu duen auzietako bat. Isabel Larraya Olatz Nagusiko Kontzejuko lehendakariaren iritziz, «Nafarroan ez da Potasas de Subizan egin nahi duten biltegia egiteko adina hondakin sortzen. Argi dago beste autonomi elkarteetako hondakinak ekarri beharko dituztela eta guk ezin dugu hori onartu».

Hondakin biltegia ala zabortegia?

• Galdera honen erantzuna funtsezkoa da askorentzat Potasas de Subizako meategien etorkizunari buruz ari garela. Galarko Zendeako Udalarentzat, argi eta garbi, hondakin kutsagarri eta arriskutsuen zabortegia izanen da Potasas de Subizako meategia. Isabel Larrayak halaxe azpimarratzen du: «Biltegian, egun berreskuragarriak ez diren hondakinak sartzen dira teknologik aurrera egin eta aukera hori dagoenean berriro atera eta birziklatzeko. Potasas de Subizako meategian sartzen badituzte hondakinak,

Isabel Larraya:
«Nafarroan ez da Potasas de Subizan egin nahi duten biltegia justifikatzeko adina hondakin sortzen»

Potasas de Subizako
biltegia ezbaian



Nafarroako eta beste herrialdeetako hondakinak ekarriko dituzte Potasas de Subizara.

JOXE LAÇALLE

baina, ez dituzte sekula berriro aterako. Zabortegia izanen da. Galerietan behera erori eta bertan geldituko da zabor guztia betirako. Epe luzerako ondorioak ez dira kontuan hartu».

Alberto Otamendik ere auzi hau izan du mintzagai egunkari honekin. «Teorian, biltegi batean sartzen diren hondakinak birziklatzeko aukera dagoenean atera daitezke berriro. Hala ere, biltegiaren sartzeara erabakitzen bada, egun hondakin horiek berreskuratzeko aukerarik ez dagoelako da. Beraz, une honetan behintzat, betirako sartzen dira bertan». Otamendiren irudikoz, baina, ez dago Meategien inguruan bizi direnen kezka piztu duen arriskurik.

Hondakinak biltzeak sor dezakeen arriskua ezezik, horien garraioak ekar ditzakeen ere

kezkaturat dauzka Galarko Zendeako herrietako biztanleak. «Nafarroako herri guztietatik igaroko dira hondakin kutsagarri eta arriskutsu horiek garraiatuko dituzten kamioiak. Zerbaiz

Hondakin Bereziak
Kudeatzeko Plana
ziurrenik udazken aldera
eztabaidatuko dute
Nafarroako
Parlamentuan

gertatzen bada, norena izanen da erantzukizuna?». Otamendiren ustez, arrisku hori ere ez da benetakoa arriskua. «Lehengaiak

garraiatzea baino arriskutsuagoa behintzat ez da izanen hondakinen garraioa».

Vicente Duque Potasas de Subizako enpresa batzordeko kide eta CCOO sindikatuko ordezkariak ere badu zer erranik biltegiaren inguruan. Aipatzen duenez, Potasas de Subizak ez du oraindik jarrera zehatza hartzeko adina irizpide. «Asko hitz egiten ari da biltegiak, baina oso gutxi Hondakinak Kudeatzeko Planaz». Duquek, halaber, argi du zabortegia ez dutela inoiz onartuko. Biltegia, berriz, batez ere Nafarroarentzat izan beharko lukeela uste du: «herrialde bakoitzak bere hondakinak kudeatu behar ditu, ez era itxian, elkarlan hitzarmen bidez». Lanpostuak ez dira mintzagai biltegiaren auzian, Duquek onartzen duenez, «ez baita lanposturik sortuko».

Lur azpiko lehenengo biltegia

POTASAS DE SUBIZAKO hondakin industrialen biltegia Estatu osoan lur azpian egiten den lehenengoa izanen da. Estatu osoan gaur egun dauden beste bost biltegiak —seigarrena laster hasiko da martxan— lur gainean egindakoak dira. Nafarroako Gobernuaren ustez, ordea, lur azpikoak dira seguruenak. CCOO sindikatuak ere Gobernuaren tesia defendatzen du gai honi dagokionez. Ekologistek eta Galarko Zendeako Udaleko ordezkariak, aurkako iritzia dute.

Nafarroako Gobernuaren ustez, noizbait biltegiaren gordetako hondakinak birziklatzeko aukera badago, ego-kiagoak dira lur azpiko

biltegiak. «Lur gainean egindakoak lurarekin tapatzen dira eta nahastuta daude». Hondakin Berezien Foru Legeak, hala ere, biltegiak lur gainean egiteko aukera jasotzen du.

LANEko kideen ustez, aldiz, askoz egokiagoak dira lur gainean egindako biltegiak. «Kontrolatuagoak daude eta berreskuratzeko aukera gehiago dago, ongi sailkatuz gero». LANEren idurikoz, halaber, biltegi txikiak dira aipose-nak, eta hondakinak sortzen diren lekutik ahal bezain gertu egon beharko lukete.

CCOO sindikatuak bat egin du Gobernuaren iritziarekin biltegi motaz hitz egitean. Vicente Duqueren ustez,

«toki handia beharko litzateke milaka eta milaka tona hondakin gordetzeko. Egindako ikerketek frogatzen dutenez, gainera, Potasas de Subizako meategiek egitura aproposa dute halako biltegia egiteko».

CCOO sindikatuak eta ekologistek ere egiten dute bat beste gai bati buruz hitz egitean, hau da, Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planari so eginez, Nafarroan sortzen diren hondakinak murrizteko politika bultzatu beharko litzatekeela uste dute. LANE talde ekologistak ildo horretan aipatu duenez, «hondakin industrialen biltegiak hondakin horiek sortzen dituzten enpresek finantzatu beharko litzateke soilik».

Isabel Larraia Olatz Nagusiko Kontzejuko lehendakariak ekologisten proposamenei jarraitu behar zaiela uste du. «Baina guri ez digu inork kasurik egiten. Inork ez du gure beldurra eta gure kezka ulertzen». Larraiak gogor salatu du Nafarroako Gobernuak biltegiaren inguruan izan duen jarrera: «Ez digute batere informaziorik eman eta horrek sortu ditu gure kezka gehienak, zalan-tzan jarri gaitu. Nafarroak dituen beharrak aztertu eta biltegia egin behar dela ikusten badugu onartuko dugu, baina gauzak ezin dira egin diren bezala egin. Ez digute ezer azaldu. Egingo zutela besterik ez digute erran». X

mintzoak

Xamar

Ramon Bengarai (1896-1936)

■ Egia erran bertze egunkari batean ikusi artio ez nintzen goartu aurten beintan ehun urte betetzen direla Ramon Bengarai Zabalza sortu zentetik; gaurean ere haren bizitza laburra oroitaraztea merezi duelakoan, hona hemen lerro zemeit.

Haren aita Justori, irakusle lanbidez, Garraldan lan egitea suertatu zitzaion. Xamarrena etxean egokitu zen familia guziarekin eta han berean sortu Ramon Bengarai. Gauren aitatziren aita, Ramon Elizagarai, aitabitxi zuelarik Ramon izena eman zakoten.

Haurra zelarik Iruñeratu zen, aita arras goiz hil beitzitzaion. Iruñean ikasketa zemeit egin ondorean lanean hasi zen, bai eta artikulo zemeit eskribitzen ere hiriburuko egunkarietan. Berantago, 1926an, moldiztegi bat imini zuen Nueva karrikan. Lantegi honetan sortu eta plazaratu zuen 1932an *Democracia*. *Diario de la Republica* izeneko egunkaria; bixtan da dagoeneko haren ideiak zeren alde lerrotatzen ziren. Urte berean *Partido Republicano Autonomo*-an sartu zen eta pixkirrin berantago *Alianza Republicana* izenekoan. Fite nabarmendu zen partidu barnean, elekari abila omen beitzen, eta *comite provincial*-eko buru hautatu zuten. Ondorean partiduaren zerrendaburu ere izan zen 1933. urteko hauteskundeetan, bai azken unean partidua ez zen aurkeztu.

Bizitza publikoak ez zakon galarazten Garraldarekin zuen lotura, ez eta gauren familiarekin zuena ere. Aitzitik bizitza publikoak zuen zemeitetan herrira eramaten; oino xahar batzuek gogoan dute Aroskoa etxean eman zuen mitina errepublikan, bai eta nola joaten zen ardura festakari edo nola udaletzeko galeriatik agurtzen zuen plazan bildu jendea. Errepublikan aintzin, gauren ama sortu zelarik Ramon izan zen haren aitabitxi, aitaxi-amatxik nahikaria handia beitzuten haren alabasia izan zedin. Pentsatzen dut aitatzik laket zituela Ramonen ideiak, Californian ibilia eta eliza joaten ez zirenetarikoak beitzen.

1936an otsaileko bozketetan *Frente Popular*-eko zerrendan zegoen *Izquierda Republicana*-ren ordezkari gisa. Xakina denez Nafarroan eskuinak zuen irabazi Rafael Aizpunekin (82.668). *Frente Popularrak* galdu egin zuen, alta Ramonen emaitza (33.719 botu) ez zen makala izan.

Artean Estatutuaren aferra gertatua zen. Ramonek beti egin eta idatzi zuen lau probintziko estatutuaren alde. Gehiago dena, hori ere galdurik 36ko ekainean Madrileko presidenteari eta Gortetako komisioneri idatzi zaien gutun bat kexu *Estatuto Vasco* izenekoan ezabatu ere zutelakoz Nafarroaren sartzeko uzten zuten bidea.

Hilabete berantago gerla zen. Ez zen nornahi Ramon Bengarai matxinatuendako, gorrienerikoa beizik. Alde egitekotan urranena ipar aldera jotzea zuen, eta hortarako laguntza izanen bide zuen Garraldan, muga urrun ez izanki eta. Bala hori ere bazekiten guardiek, eta gauren familian kontatzen da Xamarrena, egunez eta gabez, arras urranetik begiratua eta barrandaturia izan zela egun hits haietan, harik eta Ramon atxilotu artio.

Abuztuaren 24an hil zuten, haren anea Francisco bezala. Ramonek emaztekoa eta bortz haur txiki utzi zituen eta izan ez zen etorkizun baten ametsa.

Gizarte atzenkor hontan, daudela omenaldi gisa lerro eskas hauek bedere Ramonen alabasasiaren semeak eginak. ■

Xanti Begiristain

Beren Gorentasunak

■ Bai, nahita jarri dut izenburuan Beren Gorentasunak. Izan ere, aurreko egunetan Juan Carlos I.a eta Sofia Erregina ibili dira Hego Euskal Herriko zenbait lekutan paseoan. Dirudenez, asperten direnean edota bururatzen zaienean, erabakitzen dute ibilaldirio bat egitea sasimugaz alde honetan, azken gauzarik interesgarrienak ikusteko eta firin-farin aritzeko. Aurrekuak apreziazten ere badakite, eta noizean behin, txapela airean hartzen ere asmatzen dute. Dena den, arte horretan, eta esatea zilegi baldin bazait, adierazi behar dut Errege trebeak azaldu zuela askoz ere iaotasun handiagoa.

Hasierako gaira itzuliz, esan nahi dut jarri dudala goiburu hori azpimarratzeko, neronek behinik behin, ez ditudala bi pertsona horiek nire gorentasuntzat hartzen, errespetu guztietan, jakina, zer gerta ere.


Badakit norberak eskubidea eta askatasuna izan behar dituela adierazteko nahi eta sentitzen duena. Pertsona batzuek beren Errege-Erreginatza hartzen dituzte bi monarka horiek. Oso ongi! Eskubide guztia dute edo eduki beharko lukete, behintzat, jarraitu nahi badute aldarrikatzen ozenki hemen benetako demokrazia dagoenik ez dut erabat sinesten baina. Eta frogatzeko, bakar-bakarrik gogoraraziko dut nola Ezker Abertzaleek izan dituzten askoz ere arazo eta oztopo handiagoak eta ondorio latzagoak azaldu nahi izategatik soilik beren desadostasuna. Non dago, bada, egiazko demokrazia hori?

Arrazonamenduekin jarraituz gero esan beharko genuke bi pertsona horiek ez direla hauteskundeetan aukeratuak izan, beraz, ez dute inor ordezkatzeko. Oroimena pixka batez martxan jartzen badugu, tristeki aitortu beharko dugu gogoratzen dugula, oraingo Erregea diktadore txikiak izendatu zuela errege. Nork defendatze lezake horren zilegitasuna benetako demokrazia baten barruan? Ez du zentzurik. Ohikeriari jarraipena ematea baino ez da egiten jokalmolde horrekin, nire iritzia apalean. Eta zer esango zenidakete sortarazten dituzten alferrikako gastuei buruz? Agian, beren altxor-kutxa aberatsetatik aterako ote dute batere sosik sortzen duten xahuketari aurre egiteko? Ba, egia esan, ez dut uste.

Esan bezala, komunikabide gehienek gehiegizko garrantzia eman diote gertakari horri, eta gutxi-gizkoa, aldiz, beren ezadostasuna agertu nahi izan dutenei era baketsu batez. Alde batetik, zinezko demokrazia balego Espainiatik sinestarazi nahi diguten bezala, ez da batere erraz ulertzen zergatik Ertzaintzak debekatu eta eragotzi behar duen Ezker Abertzaleen adierazpen askatasuna. Eta bes-

etik, horren sinesgaitza da, era berean, ikustea aurreko egunetan EITBk eta beste hainbat kazetari eta politikarik eman dioten atxekimendua bikote ospetsu horri. Ertzainek pilota batez zauritutako emakumearen gertakariari, berriz, komunikabide gehienek ez diote aparteko aipamenik egin, aurka kritikatzeko Ezker Abertzalekoa ez baldin bazen behintzat.

Estatuko egunkari ospetsu batek jarri zuen bere lehenengo orrialdean «Euskaldun guztion Erregea» etorri zitzaigula bisitatzen. Berebiziko probokazio maltzurra izateaz landa, neronek barre egin nuen tamainako ergelkeria irakurri bezain



azkar; zertarako hasiko ote naiz hemen horri buruz azalpenak ematen? Ez al da nahiko nabarmena?

Gainera, gaitzespen hauek guztiak ez dira inondik ere berriak. Herri honen zati dezente batek hasieratik azaldu die Espainiako monarkiei bere ezespena, adibidez, Eusko Gudariak abestu zitzaizenean, eta ondorenean burututako bilkura, manifestaldi eta abarretan.

Une batez, pentsa dezagun besterik gabe, Errege-Erreginek xahututako dirutza horrekin egin ahalko liratekeen balizko gizarte hobekuntzak.

Laburbilduz, esan dezadan albistegietan alderdikeria franko egoten dela, eta ez ahaztu Erregea bera Franco berberak bedeinkatu zuela; atera ditzagun hortik kontuak!

Hortaz, gora beren Gorentasunak, baina, batez ere, Euskal Herritik urrutik! Ongi joanak izan daitezela! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida III:
Julene Azpeitia euskal maistra

■ Hirugarren karlistadan Santa Cruz apaiza ospetsuaren 8. bataillonaren zeuden borrokari guzrien artean Markos Azpeitia zumaiar mariñela zegoen. Zauritu zutenean, eta Loiolaniko susperraldia eramangarriagoa egin nahian apika, Pedro Miguel Urruzuno Elgoibarko idazle herrikoia lagun zuzaz irakur eta izkiriartzen ikasteari ekin zion gogotik, pilotu agria sakeleratzea beti helburu, aisa hatzeman zuena. Itsasgizon gaztea berriz ere herriratu zenean Gomez andrearekin esposatu zen, eta 1888.eko urtarilaren zortzian Josefa Juliana sortu zitzaion, lau alabetan zaharrena. Ber herrian edoski zituen leizikoko ikasgaiak gure neskatokak, handik Donostia eta Bilbora abiatu zelarik magisteritza burutzeko. 1906.ean maisutza eskuraturik, Bilbon bertan, Abadiñon, Astorki-Txabarri sendiaren etxean eta Aizarnababalen aritu zen irakasle, alabaina 1911.ean lanpostua irmokiago ziurtatu nahian edo, Valladoliden egin beharreko oposaketan eman zuen izena, eta aurkeztu guzrien gainean erraz gailendurik, lehendabizikoa geratu zen. Eako eskolen ardura bere eginik. Herri bizkaitarrean bost urte eman ostean Enrike Eskauriatza indiano bilbotarrearekin ezkondu zen, eta horren kariaz lau urtez Mexicon bizi izan zen. Hortxe erabili zuen estraineko aldiz *Arritokteta* ezizena Euskal-Etxearen argitalpenerako ondu artikuluen izenpetzeko. Hogeigarren hamarkadan berriz ere etxeratu zenean, eta Bizkaiko Aldundiak antolatutako oposaketan aurrenean geratu zelarik emakumezko langilegoaren zuzendari izendatu zuten. Betekizun berria osteraz zaharo erdeinatu zuen nortu ezean omen, eta irakaskuntzaren zirrarak eramanda, betiko arta berreskuratu zuen Amorebieta eta Abadiñoko auzo eskoletan sutsu eta nekazekin 36.eko gerrate ankerra hasi artio. Gerra ostean eta berariazko erbesteratetik Legazpian pausatutik —Donibane Lohitzun eta Akizen ibili zen, baina bigarren gerrate handia hasita Etxalarko baserri batetan ezkutatu zen alemanen beldurrez—, Bizkaiko Diputazioak Gorlizen zuen osasun etxeko eskoletan aritu zen irakasten, gobernamentuak zigortu arte, alta bere ideiegatik Burgos aldeko Anzo herrikerara joanarazi zuten. Handik bueltan 1955.etik aitzina eta jubilatutako bitartean Markinako Urberuagan jardun zuen.

Juleneren bizitzan irakaskuntzarekin batera ezin funtsagarriago agitzen zen berebiziko kirbina idatz langintza genezake. Orduko hezkuntza sistema gogorki kritikatu zuen, bai euskarari bai pedagogiarri zegokienean. Euskalazale amorratua enda hezkuntza baten aldarrikatzen zuen, non euskara nagusi izan zen, eta horregatik euskararekiko eskola nazionalak eta bereziki apez eta mojek zuten jarrera salatu zuen. Disziplina kontuetan arraz zorrotza eta gogorra baguenen baina pedagogia mailan erabide berriak aldarrikatzen zituen taigabe. 1931.ean II Errepublikaren gobernupean ikastolen sorkuntzan parte hartu zuen irakasle goa prestakuntzarako hainbat hitzaldi emanek. Ber urtean Euskal Langileen Elkartasuna sindikatuaren barruan Bilbon agertu zen Euskal maisuen Batzaren sortzaileetakoa dugu. Hauekin elebitasuna, sinismen askatasuna eta metodo berrien alde agertu zen. 1932.ean eta Euzko-Ikastola-Batzak eskaturik *Irakurri matte* ondu zuen, irakurketa liburua. Alabaina lehendabiziko alea baino besterik etzen argitaratu, eta moldeetarako prest zeuden gainontzeko biek egun galdurik diraute. Bere kezka guzi hauek 1933.etik aitzina *Euzkadi* egunerokoan agertu zituen batik bat. Lauaxetak apallatzen zuen euskarazko orrian, *Euzkotar umien alde* epigrafea zuen sailean, non 150 artikulua inguru agertu baitzituen. Burgosen zegoela bere lehendabiziko ipui liburu idatzi zuen. *Amandriaren altzoan*, Euskaltzaindiak sarituak 1954.ean, eta ildo horretatik abian, 1974.ean *Zuentzat: aurrentzako ipui ta trakurgaiak* izenburukoak kaleratu zuen Donostian. *Euzkadi* egunkarian ez ezik baita bestelako aldizkarietan ere agertu zituen bereak, hala nola *Aberri*, *Egan*, *Euskera*, *Euzko-Gogoia*, *Gemika*, *Karmel* edota *Yakintza*. Bizitza luze hau 1980.eko maiatzaren 2an zendu zen Bilbon, 1975.ez geroztik Akademiak euskaltzain ohorezkoa izendatu ostean irakaskuntza nahiz euskal literaturari hain naroki eskeini ekarria sarituz. ■



Udaberri txapelketako seigarren jardunaldiko partida, 1996ko maiatzaren 25ean jokatua.

Carlos Perez Marchal, 1.830 ELOkoa — Eduardo Ridruejo, 1.970 ELOkoa.

1.e4,c6; 2.d4,d5; 3.d5,d5; 4.c4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Af4,Zc6; 7.gZ-e2,Ag7; 8.c5,0-0; 9.g3,b6; 10.Ag2,h6; 11.0-0,c5; 12.c5,e5.

Jokoa ongi landu dute beltzek, alfila posizio ezerosoa eramateko. **Ikus koadroa.** Txuriak horren aitzinean nahastu egingo dira, beren kaltean. 13.Zd5,f4; 14.Zf6 xa,Df6.

Txurien asmo inozoa pikutara bidali duen jo-

kaldia: dama zaldia babesten du.

15.Zf4,Gb8; 16.Ge1.

Erresistentziarako peoia (b2-koa) desagertu egiten da.

16...., Gb2; 17.Dd5,Zb4; 18.Dc4,Ae6; 19.De4,Af5; 20.Dc4,Dd4.

Partida erabakitze moduko dama trukea. Posizioa ere beltzen aldekoa da garbira.

21.Dd4,Ad4; 22.Gf1,Gf2; 23.Gf2,Aa1; 24.Gf1,Ad4 xa.

Jipoa ikusita, txuriek etsi egin zuten. Modu itsusi samarrean galdu zuten neurraketa.



Euskalerria Irratiaren afaria Burlatan

Sagrario Aleman euskaltzale ezagunak Larreko saria jasoko du, euskararen alde egin duen lanagatik

Joan den urtean hasitako bideari jarraikiz, aurrean ere denboraldi akaberako besta egingen du Iruñeko Euskalerria Irratiak. Heldu den astean izanen da, hilaren 14an, ortzirala, Burlatako Hilarion Eslaba ikastetxeko kiroldegian: alde batetik afari irekia, eta bertetik, afalondo animatua. Ekitaldi jendetsu horren bitartez, Larreko saria eskutaratuko zaio Sagrario Aleman imoztarrari, ba baitu merezimendu.

Enrike Etxarte / Iruñea

IRUÑERRIKO euskaldunen zerbitzuan lanean ari den Euskalerria Irratiaren gainean bada zer aipatua, beraz. Irratsaioak euskara hutsez aireatzen dituen irati honek zortzigarren denboraldian dihardu, eta, duela zenbait urte ezarritako ildotik baztertu gabe, bere lana zabaltzen ari da hainbat arlotan. Horra hor bertzenaz programazioari dagoen alorra, gero eta ordu gehiago egiten ari baitira, egunean barrena barreiatuta.

Helburua da irratia entzuteko aukera ematea ahalik eta jende gehienari, hasierako xedea aintzat hartuta, irratiko zuzendariak, hots, Mikel Bujandak dioten moduan: «Erakutsi dugu, ederki erakutsi ere, posible dela euskarazko irratia Iruñean eta Iruñerriko. Erdal itsaso zabal honetan uste baino euskaldun gehiago bizi dira, uste baino gehiago lanean ari dira, elkarren berri ez dutenak, sakabanatuta dabilzanak. Horretan, bada, aritu nahi izan du hasieratik beretik irratia, hau da, euskaldungoa biltzen, edo, gaur egun esaten den eran, euskaldungoa konpaktatzen, batzuen eta besteen artean zubiak jarritz eta loturak eginez».

Izanez ere, aunitz dira, milaka eta milaka, Iruñerriko euskaldunak, eta alde horretatik irratia lotgunea izan nahi du, gizararen laguntzaz baliatuta. «Erakundeena ez, baina hemen bizi diren gizon-emakumeen baimena eta onspena aspaldi bereganatua dauka irratia, baita entzuleena ere, ikusten ari baikara gero eta jende gehiago ari dela irratia entzuten».

Irratiaren aldeko karrikako giroa hasi ziren lantzen, bertalde, duela urte eta erdi inguru. Horretarako Euskalerria Irratiaren sustengua den elkarte bizkortu eta elkartekideen ekimenen ondorio dira plazako ekitaldiak. Horien artean, dudarik gabe, ezagunena Larreko saria da, Pablo Fermin Irigaray Goizueta idazle handiaren orolgarri eratuakoa.

Joan den urtean lehendabiziko aldiz antolatua, ehundaka lagun eman zioten hatsa sari-emate horri, eta, aurrean ere, bete-betean, lanari lotu dira datorren



Antena berria jarri dute Euskalerria Irratiko kideek.

JOXE LACALLE

Mikel Bujanda: «Erakutsi dugu, ederki erakutsi ere, posible dela euskal irratia Iruñean eta Iruñerriko»

astekoak ere gaitzeko arrakasta izan dezan.

Den dena prest dago Euskalerria Irratiaren bestarako, Elena Ezkieta elkarte-buruak azaldu digun bezala: «Iazkoa ikusita kontent gabilta, eta espero dugu aurtengoan ere lagun anitz biltzea Burlatako afarian. Afari ire-

Elena Ezkieta: «Iazkoa ikusita kontent gabilta, eta espero dugu aurtengoan ere lagun anitz biltzea Burlatako afarian»

Antena berria Erreniegan

Arestian aipatu bezala, Euskalerria Irratikoak hainbat alorretan dabilta lanean, baita alde teknikoari dagoen ere.

Gaur egungo antena Zizur Txikiko San Fermin ikastolan ezarria dago, toki babestuan, beraz, halaberbarrez. Leku horretatik ez daiteke seinalea behar den moduan zabaltu, Iruñerrian berean hutsune batzuk badira, eta, horrexegatik aspaldian egoki iritzi zioten antena berria paratzeari.

Ez zen batera lanbide erraza helburu hori

betetzea, baina isilean aritu, behar den tokian atean kan kan jo, leku guztietan bada jende euskaltzalea, eta, azkenean, hara han Erreniegan gainean antena berria zut, Euskalerria Irratiko lankideen pozgarri.

Oraindik ez dute piztu, tresna batzuk ezarri behar baitira, proba egin, hedadura taxutu eta indarra neurtu. Hala ere, erran daiteke pizterakoan aunitzez ere bazter gehiagotan entzuten dela seinalea, eta askoz ere hobeki. Seinale garbi-garbia izanen da

Iruñerriko zoko-moko guztietan, irratia aparailu handi eta txiki guztietan hartzeko modukoa, baita aurotoan ere. Eta noski, Erreniegan gaina non dagoen ikusita, Nafarroako Erdialdeko eskualdeak ere joko ditu: Tafallaldea eta Estellerria, konparazio batera, gaur egun Nafarroako euskal irratiekin hedadura esparrutik urrun daudenak. Alderdi teknikoak hobetzeko dirutza handia gastatu behar izan dute, eta, hartara, gastuei aurre egin ahal izateko kanpainari

helduko diote heldu den astean, elkartekide gehiago erdiesteko: gaur egun 900 familia dira irratia euskal irratien zuzendari mila pezetako kuotasaria ordaintzen dutenak. Horixe da, gero eta gehiago jorratzen ari diren publizitatearen arloarekin batera, dirubide nagusia. Horra bór, beraz, urtetik urtera errotze bidean doan euskal irratia, antenaren bidez benetan urrats sendoa eman duena 1988. urtean abiarazitako proiektua arrontean gauzatzeko. X

kia da gainera, guztiz irekia: ateak zabalik dituzte irratiko entzule eta adiskideek, xahar, heldu eta gazteek, azken finean, Iruñerriko euskaldun eta euskaltzaleek, denak irratia bidez zertan gabiltzan eta Sagrario Alemanen ondoan egoteko».

Sariaren izena, beraz, Pablo Fermin Irigarayren izengoitziari zor zaio: Larreko. 1869garren urtean Auritzen sortua, izen handiko sendakina eta idazlea, Iruñeari estuki lotua, hiriburuko Ospitale Nagusiko zuzendari izan zen urte latz eta zailetan, eta, giro ilun, hits eta gogor huraxe ederki islatu zuen ezkutuan idatzitako *Gerla urte gezur urte* liburu mardulean. Iruñean, gerra zibilaren garaian, ikusitakoak, entzundakoak, jasandakoak, bizi izandakoak, gogoan zerabilzkionak eta beste ere moldatu zituen paper zuri haletan. Horretaz landara, hameka artikuluren egilea hainbat eta hainbat aldizkaritan, betidanik eriak haien hizkuntzan atenditzeko kezka agertu zuena, izakera zabaleko gizona... Iruñean zendu zen 1949garren urtean.

Sagrario Aleman euskaltzaleari

Larreko saria • Larreko saria, bada, Sagrario Aleman Astiz etxalekuarrari eman zaio aurrean, euskalgintzari lotutako hainbat jendek hala erabakita. Biler horretan baziren kazetariak, idazleak, irakaskuntza mundukoak, helduen euskalduntzean ari direnak eta denen artean erabaki hori hartu zuten. «Sagrariok ongi merezita dauka saria hartzea —dio Kirio Gastarena elkarteko koordinatzaileak—, ez baitugu ahaztu behar saritzen dela euskararen alde egindako lana, eta Sagrario urte askotan aritu da, eta gaur egun ere badabil, buru-belarri gainera, eta ahalegin handi hori eskertu egin behar zitzaion». Gaztetan lan horri heldutakoa, Sagrario Aleman bereziki helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrean aritutakoa da, urte sail luze honetan Arturo Kanpion euskaltegiari lotua gehienbat, IKA. Baina bertze zenbait ekimenetan ere hantxe izan da, bultzatzeko eta lan egiteko prest: EKB, Egunkaria Sortzen, Zaldiko Maldiko elkarteak, EHE (azken honetan zuzendari bat gainera) eta beste.

Saria, hortaz, gaurkoan zortzi emanen zaio imoztar euskaltzale ezagunari, Burlatako Hilarion Eslaba ikastetxeko kiroldegian egingen den bestaren bidez. Gaueko hamarretan hasi eta berandu arte iraunen du giroak, afalondoa animatua izanen baita, Jarauta 69 musika talde famatua eta Arakama trikitalarien eskutik. Afarirako txartelak salgai daude dagoeneko, 2.000 pezetatan, ondoko tokiotan: Iruñeko Xalbador eta Auzolan liburutegietan; Burlatako Zumadi eta Batzoki tabernetan; Iruñeko Toki Eder, Txakun, Txorimalo, Askartza, Sorgintze, Calixto eta Garrik ostatuetan, eta Euskalerria Irratian ere erreserbak egin daitezke (17 12 32). X

◆ Victor Moreno ◆ Idazlea

«Indibidualista handia naiz»

Victor Morenok bere azken liburua aurkeztu du aste honetan Iruñean, Txalaparta argitaletxearen eskutik. *De aquellos Barros... Prensa navarra y nacionalidad vasca* lanean, besteak beste, euskara, aberri, tradizio eta erlijioaren inguruan prentsa kontserbadoreak izandako jarrera, eta batez ere jarrera horren aldaketa, aztertzen du. «Maitasunetik gorrotora», laburbildu du aldaketa hori Victor Morenok.

Eduñe Elizondo / Iruñea

Victor Morenok Ramon Lapeskera ezizenez sinatu du liburu berri hau ere. Eta berriro ere prentsa hartu du gai nagusitzat. XIX. mendearen bukaerako eta mende honetako hasierako prentsa aztertzen du zehazki.

■ **Besteak beste, euskara, aberri eta tradizioaren inguruan Nafarroako prentsa kontserbadorean izandako jarrera aldaketa aztertzen duzu liburu berrian. *Diario de Navarra* egunkarian gertatzen den aldaketa azpimarratu duzu. Zergatik?**
Sinestezina da. Maitasunetik gorrotora doan aldaketa izan zen. Arrazoia, politikoa izan zen. Aberriaren, euskararen edo euskal tradizioen defentsak ezaugarri politikorik ez zuen bitartean ez zuen inolako arazorik sortu. Baina *Diario de Navarra*-k ikusi zuenean Sabino Aranak elementu horiek erabiltzen zituela bere tesi nazionalista, independentista eta estatuarren apurtzailea zena osatzeko *Diario de Navarra*-k atzera egin zuen. Mende honetako lehen urteetan hasi zen aldaketa.



Bere azken liburua aurkeztu berri du Victor Morenok.

JOXE LACALLE

■ **Garai hartan zer-nolako harre-ra izan zuen aldaketa horrek?**
Karlismak izan ziren aldaketa horren aurka gogorren agertu zirenak eta txaketa aldatu izana leporatu zioten *Diario de Navarra*-ri. Baina egunkari hori, azken finean, koherente izan zen bere ideologiarekin. Izan ere, *Diario de Navarra*-k ez zuen inoiz inolako proiektu nazionalistarik izan, Espainia zen defenditzen zuen aberria. Hala ere, ezin dugu ukatu irakurle arrotza harritu egin zela *Diario de Navarra*-n gertatutako aldaketa ikustean. Txistua, adibidez, garai batean tresna afektiboa zen, eta ondoren arma separatista. Exajeratua da hori.

■ **Ez da *Diario de Navarra* egunkari artikuluak aztertzen dituzun lehen aldian. Zergatik aukeratu duzu egunkari hau?**
Nire ustez, probintziaren osaketa ideologiko eta sozialean erantzukizun handia izan duen egunkaria da hau. Onerako edo txarrerako, jendea begi bakar batetik begiratzen lagundu du egunkari honek, eta bizitza, historia, ikuspuntu ezberdin askotik begiratu beharra dago. Gertatu denari eta gerta litekeenari dagokionez, erantzukizun handia du *Diario de Navarra*-k.

■ **Halako gaiak aztertzeko zale-tasuna nola piztu zaizu?**
Agian, zapuztutako bokazioa da historia niretzat, filologia ikasi bainuen. Agian, giza izaera aztertzeko dudak joera da, era indibiduallean batez ere. Egunkariak beti iruditu zaizkit eszenatik egokienak polemika guztiak eta gizon eta emakumeen barrukoak hobekien azaltzeko. Aurreko mendeetan batez ere askoz bortitzagoa zen kazetaritza, hobeto azaltzen zen giza izaera egun baino.

■ **Artxiboak dira, beraz, zure informazio iturri nagusiak.**
Artxiboak miatzeko zaletasuna aspaldidanik dut, oso interesga-

ria da, artxiboetan dago gu gara. Ez dut inoiz pentsatu fatalista naizenik, hau da, izan ginena izanen garela. Baina gustatzen zait artxiboak aztertu eta izan dugun historia ikustea, egungoak zirikatze behintzat.

■ **Literatur kritikariak ere zirikatatu izan dituzu hainbat argitalpenetan.**
Kritikaren alorrean egunkari handiak jorratu ditut batez ere, *El País*, *El Mundo*, *Abc* eta *Diario 16*. Kritika egiteko moduak aztertu ditut eta onartezinak dira. Kritikariak ez dute inor errespetatzen, ez irakurlea, ez autorea, ezta euren burua ere. Lotsatu egingo lirakeke kritikariak idatzitakoak irakurriz gero. Tontakeriak irakurtzen dituzte, harrotasunez gainera, eta batere seriotasunik gabe.

■ **Historia eta literatura kritika ez ezik, irakurketa bultzatzea ere izan da hartu duzun ardurerako bat.**
Bai. Finean, nire gai nagusia idazkera da. Historiari buruz idazten ditudan liburu hauek ere

s o s l a i a

Victor Moreno irakasle, literatur kritikari eta idazle nafar hainbat gai jorratu ditu bere argitalpenetan, hala nola, historia, literatura eta pedagogia. Azken atal honen barruan, ezagunak dira irakurketa bultzatzeko egin dituen lanak, besteak beste, 'El deseo de leer', 'El deseo de escribir' eta 'El juego poético en la escuela'.

1984. urtean 'La Navarra insólita' idatzi zuen, 1985ean 'Gora el Diario' eta 1993an 'Cañes navarros'. Gure herrialdean gertatutako hilketak ikertzea da, hain zuzen, Victor Morenoren beste gaietako bat. Liburu horren ondoren, 'Crímenes en las calles de Pamplona' sortu zuen idazle nafar.

Liburuak ez ezik, zutabeak eta literatur kritikak ere idazten ditu Victor Morenok hainbat egunkaritako orrialdeetan, besteak beste 'Egin' egunkarian. Hainbat historia aldizkarietako kolaboratzaile ere bada, horien artean, 'Príncipe de Viana', 'Gerónimo de Uztariz' eta 'Merindad de Tudela'.

idazteko aitzakia dira niretzat. Nire lanaren atal guztiak batzen dituen idazteko dudak pasioa da. Idazteko eta irakurtzeko. Irakurketa eta idazketa indibidualismoaren bi alor dira, eta ni indibidualista handia naiz. Pertsona indibidualistak dituen gizartea baino ez da kritikiko, autonomo eta gogoetarako gai.

■ **Ba al duzu proiektu berririk esku artean?**
Orain suizidioak aztertzen ari naiz, krimenak baino gehiago dira. Niretzat suizidioa ez da gauza triste edo arbuagarria, bere buruaz beste egiten duena, nire ustez, historiaren sekularizatzaile handia da. Gizakiaren autonomia defenditzen du bizitzaren beraren aurrean. Kontsekuente da aginte zibil eta dibinoaren aurrean. Material asko dago gai honi buruz. Hemerroteketan, Entzutegian eta Udal Artxiboan bilatu dut. Poliki ari naiz gaia osatzen.

«Onerako edo txarrerako, begi bakar batetik begiratzen lagundu du jendea 'Diario de Navarra' egunkariak»

P A N E

LUCRANDO

ZALDI EROA

ERDI SARO BERRIA
U...? U...? UR! URA! leñe! URA!! OTANO I

CHORRAUT ALCAIDEA
..Eta diltza honekin eskeini nahi diot gure hiri preziatua Inperioko Gudarosteari eta patatin patatan...

ETA HERRI XEHEA...
...eta zu zergatik zaude neman? Pssst!!... Erregearen lurretan kabletxo batzuk mozteagatik... Joe!!

Solidarioak askatu!!